

# ZINEMA

## OSTIRALETAN

(VIERNES)

22:15 ZUMALAKARREGI

MUSEOAN

FILMAZPIT

[www.ormaiztegi.org](http://www.ormaiztegi.org)

Harpidetu zaitez

¡Suscríbete al boletín



Ormaiztegi  
Udala

asteroko buletinera!

semanal!

## URRIAK 6 OCTUBRE **HORMA ARTEAN**




**Zuzendaria:** Laurent Cantet

**Sinopsia:** François eta beste irakasleak auzo gatazkatsu batean dagoen institutu batean egiten dute lan eta ikasturte berriari aurre egiteko prestatzen ari dira, beren ikasleei ahalik eta hezkuntza onena emateko. Baina ikasgelan, gaur egungo Frantziako mikrokosmosa, kultura eta jarrerak taldea egiten dute. Nerabeak dibertigarriak eta estimulatuzaileak izan arren, haien portaerak guztiz hondora ditzakete irakasleen gogo eta asmoak. Argi hitz egiten du François eta horrek asko harrizten ditu ikasleak, baina haren metodoak ukatzen hasten direnean, bere etika ulertzeko modu zurruna zalantzan jarriko da. Homosexualitatea izpide hartuta grabatutako bost film laburren bilduma.

**Iraupena:** 128 min

\*\*\*

## URRIAK 20 OCTUBRE **OMAR**




**Zuzendaria:** Hany Abu-Assad

**Sinopsia:** Omar gazte palestinarra da eta balak saihestera ohitu da Nadiari, bere maitasun sekretuari, bisita egin eta horma gurutzatzen duen bakoitzean. Egunez okin lanak egiten ditu; gauez, berriz, Israelen okupazioaren kontra borrokatzeko prestatzen da bere haurtzaroko lagunekin, Nadiaren anaia Tareekin eta Amjadekin. Ordea, bere bizitza betirako aldatuko da egun batean. Jada ezer ez da berdina izango ez bera ez eta Nadiarentzat. Indarkeria, traizio eta gorrotoak ekarritako zurrumbilo batek harrapatuko du. Bere printzipioei leialki jarraitzen saiatuko da, bere bizitzaren eta maitasunaren alde borroka egiten duen bitartean.

**Iraupena:** 98 min

\*\*\*

## URRIAK 27 OCTUBRE **PAPUSZA**



**Zuzendaria:** Louise Archambaut.

**Sinopsia:** Polonian bere lana argitaratu zuen aurreneko olerkari ijitoa izan zen Bronisława Wajs edo Papusza. Neskatoa zenean ezkonarazi zuten borondatez kontra, nazien izugarrikerietatik ihesi aurrena eta ondoren poloniar estatu komunistaren doktrinamendutik, Papsuzaren bizitzan, herri ijitoaren ohiturak eta historia ibiltaria laburbiltzen dira XX. mendeko Europaren erdi a ldeko h i s t o r i a gatazkatsuen agertoki handian.

**Iraupena:** 131 min